



Gazteek egiten dute eraso matxisten %26a

Euskadin 2015ean izan ziren eraso matxisten %26a gizon gazteek (30 urtetik behera) egin zuten, Emakundek jakinarazi duenez asteazken honetan.

Erakundearen ikerketak zehaztu du 2015ean 3.999 emakumek pairatu zituztela tratu txarrak, eta kasu horietako 2.900tan, bikotekideak edo bikotekide ohiak izan ziren erasotzaileak. Beste 845 kasutan, senideek egin zieten eraso.

Urte hartan, 38 emakumek bizkartzaina zuten, eta Ertzaintzak 1.638 babes agindu jasi zuten.

Erasotzaileei dagokienez, %31,6 hogeita hamaika eta berrogei urte artekoak ziren, eta %27,7 berrogeita bat eta berrogeita hamar artean.

Era berean, 18 eta 30 urte artekoak %23,3 izan ziren; 41-50 urte tartekoak %11,4; 18 urte baino gazteagoak %2,7; eta 65 urtetik gorakoak %3,3.



40 errefuxiatu atxilotu dituzte Bilboko Portuan, Erresuma Batura bidean

Poliziak Britainia Handira bidean zihoazen beste 13

etorkin atzeman zituen Bilboko Portuan ostegunean. Egunetik egunera etorkin gehiago aurkitzen dituzte Erresuma Batura doazen ontzietan ezkutatuta, eta, hori dela eta, segurtasun neurriak eta miaketak areagotu dituzte portuan dauden ontzietan. Aste honetan, 40 errefuxiatu atzeman dituzte inguruan ezkutatuta.

Poliziaren esanetan, Erresuma Batura heltzeko "bide alternatiboa" bilakatu da Bilboko Portua, batez ere Calaisko (Frantzia) errefuxiatuen kanpalekua desegin ostean. Bilbotik asteen bost ferry joaten dira Bilboko Portutik Erresuma Batuko portuetara.

Asteartean, 24 errefuxiatu atxilotu zituzten, tartean zenbait adingabe. Debekatutako eremu batean zeuden guztiak, Porstmoutheko Portura (Erresuma Batua) zihoan ferry batean ezkutuan sartzeko asmoz. Afganiarrak, pakistandarrak eta albanianak ziren. Asteazkenean, berriz, beste hiru migratzaile atzeman dituzte.

Duela bi hilabete inguru antzeman zuten Bilboko Portuan errefuxiatuen gorakada. Gehienak siriarrak edo kurduak dira.

'Cider Truck', sagardotegi ibiltaria

"Cider Truck" sagardotegi ibiltariak txotxa sustatuko du Gipuzkoako sagardotegiak ezagutarazteko kanpaina turistiko baten baitan.

"Sagardoaren inguruan erritu bat eraiki da, eta sagardotegira joatea sozializazio esperientzia da, balio kulturala eta turistikoa duena", adierazi du Alfredo Retortillo Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuak.

Sagardotegi ibiltaria 1964ko Citroën HY bat da, eta kupela bat eta parrilla bat ditu, sagardoa, txuletoia, gazta eta menbrilloa zerbitzatzeko.

Bidaia atzo bertan abiatu zuen, Donostian, eta ondoren Bordele (Frantzia), Madril eta Galizia bisitatuko ditu.

Disneyren pelikula bat ostu eta erreskatea eskatu dute 'hacker' batzuek

Hacker batzuek Disneyren pelikula bat ostu dute, eta Internet bidez film luze hori ez zabaltzeko erreskatea eskatu dute, Bob Iger Disneyko kontseilari delegatuak esan duenez.

Igerrek ez du zehaztu zein film ostu duten lapurrek, baina konpainiak ez duela pelikula berreskuratzeko erreskaterik ordainduko iragarri du. Dirua jaso ezean, pelikula horren zati bat Internet bidez zabalduko dutela mehatxatu dute pirata informatiko horiek.

Disney eta ikerlariak gertatutakoa argitzeko lanean jarri dira jada. Konpainia horrek *Pirates of the Caribbean: Dead Men Tell No Tales* eta *Cars 3* filmak estreinatuko ditu aste hauetan.

Disneyko kontseilari delegatuak azaldu duenez, pelikula ostu dutenek *bitcoin* bidez (diru digitala) ordaindu beharreko "diru mordo" eskatu dute erreskate gisa, eta ordaintzen ez badute, film luzearen hasierako bost minutuak Interneten zabalduko dituztela mehatxatu dute.

Eskaera ekonomiko horri beraiek nahi bezala erantzun ezean, 20 minutuko tartek argitaratuko dituzte pirata informatikoei, eskatutako diru guztia lortu arte.

Gizon bat atxilotu dute Barakaldon, ohorearen kontrako delitua leporatuta

Gizon bat atxilotu dute Barakaldon, webguneetan eta foroetan erabiltzaileak haserrarazi eta mezu iraingarriak bidaltzea egotzita. Gainera, beste pertsona batzuen izenak eta argazkiak erabiltzen omen zituen Sarean bere nortasuna ezkutatzeko. Ohorearen kontrako delitua leporatu diote.

Guardia Zibilak jakitera eman duenez, Castellon pertsona batek salaketa jarri ondoren abiatu zuten ikerketa, norbaitek bere datuak eta argazkiak Interneten bere baimenik gabe zabaltu zituela salatuta ondoren.

Ondorioz, Guardia Zibilak Barakaldoko 38 urteko bizilagun bat identifikatu du. USB memoria ugari, disko gogorrak eta lapurtutako telefono mugikor bat atzeman dituzte haren etxean.

eguzaldia

Larunbatean giro eguzkitsua. Goizean behe-lainoa sortuko da, baina laster jasoko du. Tenperatura maximoak igo egingo dira, suabeak eta atseginak izango dira. Tenperatura minimoetan ez da aldaketarik izango, beraz, egunsentian fresko egingo du. **Igandean** hegoaldeko haizea nagusituko da eta bero egingo du. Tenperaturaren igoera handiagoa izango da eta baliteke 30 °C-ra hurbiltzea. Zerua lausotuta egongo da. Iluntzean bero-hodei batzuk ere garatuko dira, baina ateri eutsiko dio.



Omar Fraile: 'Ikusgarri eta sinestezin da'

Omar Fraile (Dimension Data) izan zen garailea Italiako Giroko 11. etapan. Florencia eta Bagno di Romagna artean 161 kilometro burutu zituzten txirrindulariak, eta Mikel Landa eta Omar Fraile izan ziren jardunaldiko protagonista nagusienak ihesaldi luzean parte hartu eta gero. Bagno di Romagnatik 111 kilometrora jo zuten eraso eta elkarrekin joan ziren aurrera.

Helmugarako 40 kilometroren faltan harrapatu zituen talde txiki batek eta Frailek indarrak izan zituen bertan mantentzeko, ez ordea Landak.

Azken kilometroetan laukote bat eratu zen: bera, Rolland frantziarra (Cannondale), Rui Costa portugaldarra (UAE Team Emirates) eta Tanel Kangert estoniarra (Astana). Nahiz eta Santurtziko gizona faboritua ez izan indarrak izan zituen esprintean ihesaldiko kideak gainditzeko.

Frailek lortutako garaipena sinestezina izan dela adierazi zuen helmuga ailegatu zenean.

Gaur, 13. etapa izango da: Reggio Emilia - Tortona (162 km).



Iraiak, Elik eta Irunek hunkiturik esan dute adio Athletic-i

Iraia Iturregik, Eli Ibarrek eta Irune Muruak Athletic utziko dute eta prentsaurreko bat eman dute Lezaman. Emozioa izan da nagusi, eta jokalariek malko artean esan diote agur Athleticici.